

DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

AURKIBIDEA

ZIOEN ADIERAZPENA.

LEHEN KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- XEDEA.
2. artikulua.- KONTZEPTUA.
3. artikulua.- PRINTZIPIO OROKORRAK.
4. artikulua.- BALDINTZA OROKORRAK.
5. artikulua.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ESKUMENA.

BIGARREN KAPITULUA.- DIRUZ LAGUNTZEKO JARDUERAREN SUBJEKTUAK ETA EDUKIA.

6. artikulua.- MOTAK.
7. artikulua.- LANKIDETZA-HITZARMENAK.
8. artikulua.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERA EDO PROIEKTUAK.
9. artikulua.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZIAZIOA.

HIRUGARREN KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA.

10. artikulua.- PROZEDURA MOTAK.
11. artikulua.- OINARRIAK.
12. artikulua.- DIRU-LAGUNTZAK LEHIAKETA BIDEZ EMATEKO PROZEDURA.
13. artikulua.- ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA.
14. artikulua.- DIRU-LAGUNTZEN BERRI ARGITARATZEA.

LAUGARREN KAPITULUA.- KUDEAKETA, JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA.

15. artikulua.- DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA.
16. artikulua.- ONURADUNEN AZPIKONTRATAZIOAK.
17. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK.
18. artikulua.- GASTUA EGITEKO KONPROMISOA ETA ORDAINKETA.

19. artikulua.- EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA.

BOSGARREN KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA.

20. artikulua.- ITZULI BEHAR IZATEKO ARRAZOIAK.

21. artikulua.- ITZULI BEHARREKO KREDITUEN IZAERA.

22. artikulua.- ITZULTZERA BAHARTUAK.

23. artikulua.- ITZULARAZTEKO PROZEDURA.

24. artikulua.- KAUTELAZKO NEURRIAK.

SEIGARREN KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA.

25. artikulua.- ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA.

26. artikulua.- FINANTZEN KONTROLA.

27. artikulua.- LAGUNTZEKO OBLIGAZIOA.

ZAZPIGARREN KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN ALORREKO ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK.

28. artikulua.- ADMINISTRAZIO ARAU-HAUSTEAK.

29. artikulua.- ARAU-HAUSTE ARINAK.

30. artikulua.- ARAU-HAUSTE LARRIAK.

31. artikulua.- ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK.

32. artikulua.- ZIGOR MOTAK.

33. artikulua.- ZIGORREN MAILAKETA.

34. artikulua.- ARAU-HAUSTE ARINENGATIKO ZIGORRAK.

35. artikulua.- ARAU-HAUSTE LARRIENGATIKO ZIGORRAK.

36. artikulua.- ARAU-HAUSTE OSO LARRIENGATIKO ZIGORRAK.

37. artikulua.- PRESKRIPZIOA.

38. artikulua.- ZIGORRAK JARTZEKO ESKUMENA.

39. artikulua.- ZIGORTZEKO PROZEDURA.

40. artikulua.- ERANTZUKIZUNA IRAUNGITZEA.

41. artikulua.- ERANTZUKIZUNAK.

XEDAPEN IRAGANKORRA.- PROZEDUREN ERREGIMEN IRAGANKORRA.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- AURREKO ORDENANTZA INDARGABETZEA.

AZKEN XEDAPENA.- ORDENANTZA INDARREAN JARTZEA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Diru-laguntzen bitartez bideratzen da sektore publikoaren finantza-jardueraren parte handi bat, pertsonen eta erakunde publiko nahiz pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko asmoz, horiei beren finantzetan lagunduz.

Ohiko gastuarekin zorrotz jokatzuz, politika publikoak hobeto aukeratuz –gastu-lehentasunei arreta berezia eskainiz– eta kontrola eta ebaluazioa areagotuz, murriztu egin dira apurka-apurka sektore publikoaren finantziario beharrak, eta handitu sektore pribatuaren finantza-aukerak. Eta eragin dinamizatzailea izan du horrek ekonomi jardueran, hazkunderan eta garapenean, baita enplegu sorkuntzan ere.

Gardentasuna da Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra gidatzen duten printzipioetako bat. Izan ere, diru-laguntzak emateak berekin dakarren gastu publikoaren eraginkortasuna areagotzen du gardentasun horrek, zuzenean. Ildo horretatik, merkatuari eragin liezaiokeen distortsio eta interferentziak saihesteko aukera emango du diru-laguntzei buruzko informazio handiagoa edukitzeak, baita administrazio publikoen jardueren konplexutasuna argitu eta horiei koherentzia ematekoa ere, gainjartze oro eragozten delarik.

Eraginkortasuna hobetzeko bide horretatik, toki administrazioek DIRU-LAGUNTZEN ESTRATEGI PLANA taxutu beharra daukatela xedatzen du Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra; bertan, izan ere, lortu nahi diren helburu eta ondorioen eta izango bide diren gastuen eta horien finantziario iturrien arteko lotura ezarri beharko da, diru-laguntzekin aurre egin nahi zaien behar publikoak baliabideetara, hau da, edukitzea espero den baliabideetara egokitze aldera. Hortaz, aurrekontuak gauzatzeko oinarrien baitan onetsi beharko da UDAL DIRU-LAGUNTZEN ESTRATEGI PLAN hori, dela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bidez, dela diru-laguntza mota bakoitzeko berariazko ordenantza bat taxutuz. Halaber, administrazio publikoek ematen dituzten diru-laguntzen oinarritzko erregimen juridikoa finkatu du Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

Horrenbestez, lege horren baitako oinarritzko aginduetara egokitzea du helburu ordenantza honek, eta hartan jasotzen den diru-laguntza kontzeptua bere egiten du. Helburu, ondorio eta kostuen arteko lotura egiteko tresnatzat jotzen da bertan Estrategi Plana, oinarritzko ebaluazio prozedura arautzen da Toki Gobernuaren Eraberritzeko Legean xedatutakoaren ildotik, eta diru-laguntzaren ondoriozko harreman juridikoaren elementu subjektibo eta objektiboak definitzen dira, baita diru-laguntzak ematen dituzten organoen eskumenak arautzen ere.

Orobat deskribatzen da udalaren diru-laguntzen alorreko jardueraren –Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko funtsezko hitzak baliatuz arautzen da–, diru-laguntzak zuzenean emateko prozedurari gardentasuna ematen eta azpikontratazioa, arau-haustea eta zigorrak zehazten.

LEHEN KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Vitoria-Gasteizko Udalak eta nortasun juridiko propioa izanik ere hari lotuak dauden edo haren menpeko diren zuzenbide publikoko erakundeek nahiz bestelako entitateek ematen edo kudeatzen dituzten diru-laguntzen erregimen juridikoa finkatzea da ordenantza honen xedea, ematen dituzten diru-laguntzak administrazio ahalmenak baliatzearen ondorio diren neurrian.

Udal aurrekontuekin finantzatzen diren merkataritza sozietate, zuzenbide pribatuko erakunde nahiz bestelako erakundeek –beren izaera eta forma juridikoa edozein izanik ere– kontraprestaziorik gabe ematen duten diruari aplikatuko zaizkio ordenantza honetan jasotzen diren kudeaketa eta informazio printzipioak. Nolanahi ere, harreman zuzena izan beharko dute diru-laguntzek horien sortze arauan edo estatutuetan adierazten den jardueraren helburu nagusiarekin.

2. ARTIKULUA.- KONTZEPTUA

1.- Hauxe joko da diru-laguntzatzat, ordenantza honi dagozkionetarako: 1. artikuluan adierazi diren subjektuetako edozeinek ondorengo betebeharrak betetzen dituzten pertsona publiko nahiz pribatuen alde egindako diru emateak oro:

- a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea dirua.
- b) Helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat bideratzeko edo portaera berezi bat hartzeko nahiz egoera jakin bategatik ematea dirua –lehendik gauzatuak izan ahalko dira, edo gerora gauzatzekoak–; hortaz, finkatutako betebeharrak material eta formalak bete beharko ditu onuradunak.
- c) Finantzatutako proiektuak, ekintzak, jokabideak edo egoerak onura publiko edo interes sozialeko jarduera bat bultzatu edo helburu publiko bat sustatzea xede izatea.

Halaber, bekak, hobariak eta sariak ere diru-laguntzatzat joko dira, eta, hortaz, ordenantza honetan finkatutako erregimena aplikatu ahal izango zaie, salbu eta onuradunak eskatu gabe ematen badira; baita, oro har, udal aurrekontu orokorren kontura ematen diren edonolako laguntzak ere, osorik nahiz partez Europar Batasunaren edo beste administrazioen baten fondoak baliatuz finantzatzen direlarik.

2.- Baldin eta udal jabariko ondasunak doan besterendu edo horien gozamina eta aprobetxamendua uztean badautza laguntzak edo diru-laguntzak, ondarearen alorrean aplikagarri den araudian xedatutakoaren arabera jokatuko da.

3. ARTIKULUA.- PRINTZIPIO OROKORRAK

3.1.- ESTRATEGI PLANA

Oro har, ahaleginak egingo dira edozein kudeaketa modu edo sistemaren bitartez emateko asmoa dagoen udal diru-laguntza guztiak Diru-laguntzen Estrategi Planean jasotzeko; hain zuzen

ere, zertuko direla aurreikusten den diru-laguntza guztiak ageri beharko dira bertan, bai udalarenak, bai beraren merkataritza-sozietate, zuzenbide pribatuko erakunde eta erakunde autonomoenak ere.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, honako hauek ere jasoko ditu Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzen Estrategi Planak, diru-laguntza edo laguntza bakoitzari dagokionez:

- Diru-laguntzaren xedearren, helburuen eta lortu nahi diren ondorioen deskribapena.
- Hartzaileen deskribapena.
- Emate modalitatea.
- Eskariak aurkezteko epea, behar izanez gero.
- Aurrekontuetan deialdi edo modalitate horretarako finkatutako diru kopuruak, baita gastua zein aurrekontu-partidaren kontura joango den ere.
- Bizirik dauden diru-laguntzetatik (aurreko aurrekontu ekitaldietakoak) gauzatzeko dauden diru kopuruak. Horiek bukatuko direneko datak eta atzerapenaren justifikazioa, halakorik izan bada.

Zuzeneko laguntza nahiz diru-laguntza oro baliorik gabea izango da aurrekontu kreditu egoki eta nahikorik izan ezean.

Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi aurretik Ogasun Batzordean aurkeztu beharko da Diru-laguntzen Estrategi Plana –jakinaren gainean egon dadin–, aurrekontuekin batera aurkeztu ere, eranskin gisa, eta Udal Kazetan nahiz udalaren web orrian argitaratu beharko da. Era berean, lurralde kontseiluetan ere aurkeztu beharko da, eztabaidatua izan dadin.

Dena delako ekonomi ekitaldia bukatzen delarik, udal sail, merkataritza-sozietate, zuzenbide pribatuko erakunde eta erakunde autonomoek ebaluatu egin beharko dituzte diruz lagundutako eta gauzatutako programak, emaitzak eta baliagarritasun eta eragin soziala aztertzeko, horiek mantentzea edo bertan behera uztea komeni den erabakitze aldera. Udal Kontuhartzailetza Nagusira bidali beharko da dokumentazioa, Estrategi Planari nahiz salbuespen gisa zuzenean eman diren diru-laguntzei buruzko txostena egin dezan hilabeteko epean –hura jasotzen duenetik kontatuta–, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 133. eta 134. artikuluetan finkatutako parametroak aintzat harturik. Ogasun Batzordean eztabaidatuko da ondoren dosier osoa.

3.2.- Printzipio hauei jarraiki bideratuko da udal diru-laguntzen kudeaketa:

- a) Baremo, parametro edo irizpide objektiboak erabiltzearen mende egongo da udal administrazioak diru-laguntzak emateak berekin dakarren fondo publikoen banaketa. Hain zuzen ere, aldeztu aurretik ezagutu beharko dituzte horiek diru-laguntzen onuradun izan litezkeenek.
- b) Publikotasuna, gardentasuna, lehia askea, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- c) Eraginkortasuna, jarritako helburuak betetzerakoan.
- d) Eraginkortasuna, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan.

4. ARTIKULUA.- BALDINTZA OROKORRAK

4.1.- Oro har, behar bezala justifikatutako salbuespen kasuetan izan ezik, ezingo da inongo diru-laguntza edo laguntzarik eman –ezta Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorretan



izen eta guzti aurreikusita daudenak ere- aldeztu aurretik Diru-laguntzen Estrategi Planean jasota ez badago.

4.2.- Edozein motatako laguntza edo diru-laguntzak ematen direlarik zuzenean nahiz hitzarmen bidez, salbuespen gisa, deialdi publikoa egitea zailtzen duten interes humanitarioen alorreko behar bezala justifikatutako arrazoen kariaz, eta edozein delarik ere horiek diru-kopurua, aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa izan beharko da, eta udalaren aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan onetsi beharko da gastua.

4.3.- Dosierra irekitzen den unean -esan nahi baita deialdiaren oinarriak aldizkari ofizialean argitaratzen direnean- helburu jakin horietarako aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa izateak baldintzatuko ditu diru-laguntza programak, eta ez da izango aurrekontu-kredituak handitzeko inolako obligaziorik.

4.4.- Diru-laguntza edo deialdi mota bakoitza arautuko duten oinarriak eta horiei dagokien iragarkia ALHAOn, Udal Kazetan eta udalaren web-orrian argitaratuko dira.

4.5.- Baldintza hauek bete beharko dira diru-laguntzak ematean:

- a) Borondatezkoak, aldi batekoak eta finalistak izango dira, salbu eta legez edo arauz besterik xedatzen delarik.
- b) Lehendik emandako diru-laguntzek ez dute eskatzaileen aldeko inolako eskubiderik sortuko, eta ez da aurrekari hori aintzat hartuko berriro diru-laguntza emateko irizpide gisa, salbu eta legez edo arauz besterik xedatzen delarik.
- c) Ezingo da eskatu diru-laguntzaren zenbatekoa handitzeko edo berrikusteko, salbuespenezko egoeretan izan ezik.

5. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ESKUMENA

5.1.- Tokiko Gobernu Batzarrak izango du laguntza edo diru-laguntzak emateko eskumena, ekonomi kudeaketa eta, beraz, Diru-laguntzen Estrategi Plana bideratzeko zeregina bere gain hartua duen organoa izaki; hala ere, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2 artikuluetan finkatutakoaren ildotik -Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntza-, besteren gain utzi ahal izango du zeregin hori.

5.2.- Nortasun juridiko propioa duten eta Vitoria-Gasteizko Udalari lotuta dauden edo haren menpeko diren zuzenbide publikoko erakundeen eta bestelako zuzenbide pribatuko erakundeen esparruan, beren estatutuetan zeregin hori aitortzen zaien organoek egingo dute, eta horietan halakorik ageri ez bada, berriz, erakunde autonomoko zuzendaritza kontseiluak izango du ardura hori, edo administrazio kontseiluak, merkataritza sozietate lokalen edo enpresa erakunde publiko lokalen kasuan.

BIGARREN KAPITULUA

DIRUZ LAGUNTZEKO JARDUERAREN SUBJEKTUAK ETA EDUKIA

6. ARTIKULUA.- ONURADUNAK ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK, KONTZEPTUA ETA BETEBEHARRAK

6.1.- Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko betebeharrak.- Diru-laguntza ematearen funts den egoeran dauden edo oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako zirkuntantziak beren baitan biltzen dituzten pertsona nahiz erakundeak izan ahalko dira onuradun edo erakunde laguntzaile, baldin eta onuradun edo erakunde laguntzaile izatea galarazten duten zirkunstanzietakoren batean egokitzen ez badira, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 3. artikuluan adierazitakoaren ildotik.

Aurreko paragrafoan aipatu diren onuradun edo erakunde laguntzaile izateko debeku egoeretan ez daudela egiaztatzeko, delako 38/2003 Legearen 13. artikuluko horren 7. atalean aurreikusitako moduak baliatu ahal izango dituzte pertsona nahiz erakundeak.

6.2.- Onuradunak.- Diru-laguntza ematearen funts den jarduera bideratu behar duen edo hura ematea zilegi egiten duen egoeran dagoen pertsona fisiko edo juridikoa joko da diru-laguntzaren onuraduntzat.

Orobat eskuratu ahal izango dute onuradun izaera pertsona fisiko nahiz juridiko publiko nahiz pribatuen taldeek, ondasun-komunitateek eta beste edonolako ekonomi unitate edo ondare berezietan, nortasun juridikorik ez izan arren, diru-laguntza emateko arrazoi izan litezkeen proiektu edo jarduerak bideratzen dituztelarik. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da halakoetan.

Helbidea Vitoria-Gasteizko udalerrian dutela egiaztatu beharko dute onuradunek, baita, hala dagokielarik, Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda daudela ere, behar bezala justifikatutako salbuespenak salbu.

6.3.- Betebeharrak.- Hauek izango dira onuradunen betebeharrak:

- a) Diru-laguntza ematea ekarri duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera bideratu edo jokabidea bereganatzea.
- b) Betebehar eta baldintzak betetzen direla justifikatzea diru-laguntza eman duen erakundearen edo erakunde laguntzailearen aurrean, baita jarduera burutu dela eta diru-laguntza ematea edo eskuratzea ekarri zuen helburua bete dela ere.
- c) Diru-laguntza eman duen erakundeak nahiz erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztatze jardueren mende jartzea, baita Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako jardueren mende eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitako mende ere. Halaber, horiei beren kontrol zereginak egiten laguntzeko obligazioa izango dute; bereziki, ikertu beharreko agiriak ikusten nahiz horien kopiak eskuratzeko.

d) Diru-laguntza eman duen organoa edo erakunde laguntzailea jakinaren gainean jartzeari, jarduera berak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo eskuratzuz gero.

Hain zuzen ere, jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolana ere, jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatu aurretik.

e) Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, hura eman duen erakundeari jakinaraztea.

f) Diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzea. Horri dagokionez, beste administrazioekin koordinatuko du bere jarduera udal administrazioak.

Zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen salbuetsi ahal izango da diru-laguntzaren onuraduna erakunde publikoa bada.

g) Aplikagarri den merkataritza eta sektore legediak eskatzen dituen kontabilitate liburuak, erregistroak –behar diren dilijentziak eginda– eta bestelako agiriak edukitzea, edo, bestela, egiaztapen eta kontrol ahalmenak behar bezala baliatzeko aukera bermatzen duten kontabilitate-egoerak.

h) Jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.

i) Diru-laguntza jasotzen duten programen, jardueren, inbertsioen nahiz bestelako ekin-tzen finantziazioaren izaera publikoaren publikitate egokia egitea, Vitoria-Gasteizko Udalen logotipoa agerian jarriz, baita udalbatzak erabakitzen duen beste edozein ere.

j) Diru-laguntza ematean jarritako obligazio partikularrak betetzea.

k) Jasotako fondo publikoak itzultzea, ordenantza honen 20. artikuluan adierazten diren kasuetan.

l) Beren jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxkak, kartelak nahiz beste edozein euskarri baliatzen duten onuradunek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute hori. Gisa berean, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat delarik, edo ekitaldi publiko baten antolakuntza, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute horren zabalkundea onuradunek.

6.4.- Erakunde laguntzaileak.- Hauxe izango da erakunde laguntzailea: diru-laguntzari dagokionetan hura ematen duen organoaren izenean eta haren kontura diharduelarik, fondo publikoak onuradunei eman eta banatzen dizkiena, oinarri arautzaileetan hala finkatzen denean, edo, aldeztu aurretik jasotako fondo publikoak eman edo banatu gabe ere, diru-laguntzaren kudeaketan laguntzen duena.



Fondo horiek, inolaz ere, ez dira haren ondarearen baitakotzat joko, eta ezin izango dira gorde edo murriztu haren parte-hartzeak berekin dakartzan gastuak berreskuratu edo konpentsatzeko, ordenantza honen 7.3.g) artikuluan aurreikusitakoa salbu.

Honako hauek jo ahal izango dira erakunde laguntzaileak: antolakunde eta enpresa publikoak, partaide bakarra edo nagusia Vitoria-Gasteizko Udala duten merkataritza-sozietateak, zuzenbide publikoko erakunde baten babespean eratutako fundazioak eta 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarteak, baita finkatzen diren kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko nahiz pribatuak ere.

Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuari lotutako pertsonak direnean, aukeraketa egingo da alde aurretik, publikotasun, lehia, berdintasun eta bazterketarik ezaren printzipioen mende egongo den prozedura baliatuz, eta hitzarmen baten bidez zertuko da lankidetzak, salbu eta berorren xedea dela eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legea aplikatu beharra badago.

6.5.- Erakunde laguntzaileen betebeharrak.- Honako hauek izango dira:

- a) Jasotako fondoak onuradunei banatu eta ematea, diru-laguntzak arautzeko oinarrietan eta diru-laguntzak ematen dituen erakundearekin izenpetutako hitzarmenean finkatutako irizpideei jarraiki.
- b) Diru-laguntzak emateko betebeharrak edo baldintzak bete direla eta eraginkorrak direla egiaztatzea, behar izanez gero, baita jarduera burutu dela eta diru-laguntza ematea edo baliatzea ekarri zuten helburua bete dela ere.
- c) Jasotako fondoak besteri eman izana justifikatzea diru-laguntzak ematen dituen organoaren aurrean, eta, behar izanez gero, onuradunek aurkeztutako justifikazioak hari helaraztea.
- d) Fondo horien kudeaketa dela-eta diru-laguntza ematen duen erakundeak, Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz legez horretarako eskumena duten organoek egiten dituzten ikuskaritza eta kontrol jardueren mende jartzea.
- e) Deialdietako arauetan nahiz oinarrietan finkatzen den beste edozein betebeharrak.

7. ARTIKULUA.- LANKIDETZA-HITZARMENAK

7.1.- Lankidetzak hitzarmena egingo dute erakunde emaileak eta erakunde laguntzaileak, eta bertan arautuko dira azken horrek bere egiten dituen baldintza eta betebeharrak.

7.2.- Lankidetzak hitzarmenak ezingo du izan lau urtetik gorako indarraldia. Hala ere, epe hori bukatu aurretik, eta bi aldeak ados daudelarik, hitzarmena aldatu edo luzatzeko aukera aurreikusitako ahal izango da bertan. Nolanahi ere, luzapen iraupena, guztira, ezingo da izan hasierako indarraldia baino handiagoa, ezta iraupen osoa sei urtetik gorakoa ere.

7.3.- Gutxienez honako hauek jaso beharko dira lankidetzak hitzarmenean:



- a) Lankidetzaren xedearen definizioa, baita erakunde laguntzailearena ere.
- b) Erakunde laguntzaileak kudeatuko dituen diru-laguntzak arautzen dituen araudi berezia.
- c) Hitzarmenaren iraupena.
- d) Diru-laguntzen prozeduraren faseetako bakoitzean erakunde laguntzaileak bete behar dituen eta betearazi behar dituen betebeharrak.
- e) Erakunde laguntzaileak zein kontabilitate liburu eta erregistro eduki behar dituen, diru-laguntzaren justifikazio egokia eta finkatutako baldintzak bete izanaren egiaztapena errazte aldera.
- f) Diru-laguntza ematen denean finkatzen diren betebeharrak betetzen ez badira, baita ordenantza honen 20. artikuluan arautzen diren kasuetan ere, fondoak itzultzeko obligazioa.
- g) Erakunde laguntzailearen alde finkatzen den konpentsazio ekonomikoa, halakorik bada.

8. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERA EDO PROIEKTUAK

Berriazko deialdietan programatutako jarduerak –aurrerago adieraziko diren esparruetakoak– bideratzeko eman ahalko dira diru-laguntzak.

Vitoria-Gasteizko Udalak babestutako jarduerak gizon-emakumeen aukera-berdintasunaren printzipiora moldatzeko premiaren inguruan alkate lehendakariak 2002ko otsailaren 20an emandako dekretuaren ildotik, ezingo da diruz lagundu osorik nahiz zati batean gizon-emakumeen berdintasunaren printzipio horren kontrako den jarduerarik.

- a) Kultura: artearekin, zientziekin nahiz letrekin zerikusia duen edozein kultur jardueratarako eman ahal izango da diru-laguntza. Baita kultur aniztasunarekin –prestakuntzaren esparruan– eta kultur ondarea babestearekin, zabalkundearekin nahiz sorkuntzarekin –esparru ludikoan– zerikusia duten jardueretarako ere.
- b) Turismoa: turismoaren arloan, hiriko turismoa sustatzera bideratutako jarduerak, baita udalerritik kanpo hiria ezagutzera ematera bideratuak ere.
- c) Jaiak: Vitoria-Gasteizko udalerriko auzo eta herrietako jai nagusien eta jai herrikoien alorreko jarduerak, eta udalak esparru horretan antolatzen dituen jardueren osagarri diren jai ospakizunak.
- d) Kirola: kirol ekitaldi eta jardueren nahiz kirol sustapenaren alorrekoen antolakuntzatik sortutako gastuei aurre egiteko eman ahal izango da diru-laguntza.



e) Hezkuntza: ikasleen prestakuntzarako jarduerak, guraso elkarteei eutsi eta horien jardunean laguntzea, eta hezkuntza sektorerara zuzendutako bestelako jarduerak.

f) Gazteria: animazio sozio-kulturalerako jarduerak, gazteei zuzendutako programak, lehiaketak, erakusketak, gazteen sorkuntzarekin eta kulturarekin zerikusia duten bestelako jarduerak, informazio eta aholkularitza programak, aisialdikoak, prestakuntza eta hezkuntza programak, aldizkari eta argitalpenak eta, oro har, gazteen parte-hartzea eta gazte elkarteak sustatzearekin zerikusia duten jarduerak oro.

g) Osasuna: prebentziora eta osasuna babestu eta sustatzera bideratutako jarduerak, herritar orori nahiz arrisku egoera berezian daudenei zuzenduak. Baita populazio talde batzuen edo beste osasuna sustatzen duten proiektu eta programak ere, hezkuntza eta prebentzio xedeen osagarri direnak. Halaber, gaixoen berri eman eta horiek gizarteratu eta birgaitzen laguntzeko informazio eta prestakuntza jarduerak eta ekitaldi publikoak –jardunaldiak, mintegiak eta abar– antolatzen sortutako gastuei aurre egiteko ere eman ahal izango da diru-laguntza.

h) Ingurumena: hiri nahiz natur ingurumena babestera bideratutako jarduerak eta bereziki babeste zeregin horretara zuzendutako edonolako jarduerak sustatzea. Baita prestakuntza, informazio eta parte-hartze jarduerak ere.

i) Lankidetzak: garatze bidean dauden herrialdeetan elkartasun proiektuak gauzatzera bideratutako jarduerak, baita herrialde horien egoerari buruzko sentsibilizazio ekintzak ere, herritar orori zuzenduak.

j) Herritarren parte hartzea: auzo elkarten sustapenarekin, funtzionamenduenekin eta jardunarekin zerikusia duten ekintzak.

k) Gizarte zerbitzuak: gizartegintzaren alorreko informazioa eta sentsibilizazioa, gizarte bazterketa egoeren prebentzioa nahiz gizarte zailtasun egora horiei aurre egiteko baliabide pertsonalak sustatzea xede duten jardueretarako eman ahal izango dira diru-laguntzak, eta, oro har, atzemandako herritarren beharren esparruan laguntza sozial eta naturala emateko sareak bultzatzen dituzten pertsona eta taldeei.

l) Genero berdintasuna: Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ospatzeko jarduerak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legean jasotako gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako programak garatzeko jarduerak, baita emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitera zuzenduak ere.

m) Ekonomi sustapena: hiriko ekonomi ehuna hobetu eta dibertsifikatzera zuzendutako jarduerak, baita erabateko laneratzea eta lan merkatuaren kalitatearen hobekuntza lortzera zuzendutakoak ere.

Esparru horren baitan, adibide gisa, honako hauek sar litezke: enpresa berriak sustatzera –batez ere autoenpleguaren eta ekonomia sozialaren arlokoak–, horien maila teknologikoa hobetzera, langabeen prestakuntzara, langileak lan tipologia berrietara egokitzera eta gisakoetara bideratutako jarduerak.

n) Estrategi Plangintza: Vitoria-Gasteizko Ekonomi eta Gizarte Kontseiluarekin koordinaturik hiriko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturalaren ezagutza hobetzera zuzendutako ekintzak.



ñ) Euskara: euskarari belaunaldiz belaunaldi iraunaraztea xede duten jardueretarako eman ahalko dira diru-laguntzak, baita gizarte bizitzako hainbat esparrutan nahiz sorkuntzaren, ekoizpenaren, prestakuntzaren eta itzulpengintzaren alorrean euskararen erabilera bultzatzea xede dutenetarako ere.

o) Beste: udalaren jardunaren osagarri den eta, populazio talde jakin bati zuzendua izaki, diru-laguntza emateko modukoa den beste edozein jarduera.

9. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZIAZIOA

9.1.- Diru-laguntza jasotzen duen jarduera finantzatzeko diru-kopuruaren parte bat norberak jartzea eskatu ahal izango da oinarrietan. Ordenantza honen 17.2.b) artikuluan adierazten den moduan egiaztatu beharko da diru-laguntza jasotzen duen proiektu edo jarduera dela-eta norberak egiten duen diru-ekarpen hori.

9.2.- Oinarrietan finkatuko da diru-laguntzak bateragarri diren ala ez helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Bata-suneko, dela nazioarteko– emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, hurrengo atalean adierazten dena gorabehera.

9.3.- Diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo du gaintitu, inolaz ere, dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein diru-laguntza, laguntza edo baliabiderekin batera.

9.4.- Diru-laguntza emateko orduan aintzat hartutako egoera aldatzen delarik, baita arauetan baimentzen diren kasuetatik kanpo bestelako ekarpenik jasotzen delarik ere, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, diru-laguntza arautzen duen araudian aurreikusitako moduan.

9.5.- Onuradunei emandako diru-kopuruek sortzen dituzten finantza-etekinak diru-laguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio, eta diruz lagundutako jarduerarako baliatuko, salbu eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan besterik xedatzen bada, behar bezala arrazoitzen delarik.

HIRUGARREN KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

10. ARTIKULUA.- PROZEDURA MOTAK

10.1.- Nahi duen ororen arteko lehia baliatuko da diru-laguntzak emateko ohiko prozeduratzat. Hain zuzen ere, hauxe joko da nahi duen ororen arteko lehiatzat lege honi dagozkionetarako: diru-laguntzak aurkeztutako eskabideak alderatu ondoren ematen direneko prozedura, zeinen baitan horien arteko lehenetsun-hurrenkera bat finkatuko baita, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik finkatutako balorazio-irizpideei jarraiki, eta irizpide horiek aplikatzen direlarik baloraziorik handiena lortzen dutenei esleituko diru-laguntzak, erabilgarri dagoen kreditua, hots, deialdian finkatutakoa mugatzen harturik.

Halakoetan, administrazio publikoek beren burua antolatzen duten gaitasunaren ondorio diren espezialitateak gorabehera, organo kolegiatu batek egingo dio diru-laguntzak emateko proposamena horiek eman behar dituen organoari, organo instruktorearen bitartez.

10.1.1.- Bideratze organoa.

Deialdia sustatzen duen arloko zinegotziaren menpeko udal zerbitzuetako teknikariei dagokiei diru-laguntzak emateko prozedura bideratzea. Ofizios egingo dituzte ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten jarduerak oro.

10.1.2.- Organo kolegiatua.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.1. artikuluari dagokionez, gutxienez ere hauek osatuko dute laguntzak emateko proposamena egiteko eskumena izango duen organo kolegiatua: dagokion zinegotzi ordezkariak, zerbitzuburuak eta gai horretan eskua duen beste teknikariak.

10.1.3.- Deialdian azaldutako irizpide teknikoak baloratzera mugatuko da laguntza emateko proposamena.

10.2.- Diru-laguntza hauek eman ahal izango dira zuzenean:

- Estatuaren, autonomia erkidegoen nahiz toki-erakundearen aurrekontu orokorrean inoren izena eta guzti aurreikusita daudenak, hitzarmenetan eta diru-laguntzei buruzko araudietan jasotakoari jarraiki.
- Lege mailako arau batek administrazioa ematera behartzen duen edo kopurua finkatzen dion diru-laguntzak, zein araudi propioaren ildotik aplikagarri zaien prozedurari jarraiki emango baitira.
- Salbuespen gisa, deialdi publikoa egitea zailtzen duen interes humanitarioen alorreko behar bezala justifikatutako arrazoiaren bat egokitzen delarik ematen diren diru-laguntzak.

10.3.- Ezingo da eman deialdian zehazten den kopurutik gorako diru-laguntzarik.

11. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

Laguntza edo diru-laguntzak emateko oinarriek honako hauek jasotzen dituzte gutxienez:

- a) Laguntza edo diru-laguntzaren xedearen, baldintzen eta helburuaren definizio argia eta zehatz-mehatza.
- b) Esparru guztietan, diruz lagunduko diren jarduerak eta onuradunek antolatuko dituzten ekitaldi eta ekintzak nori zuzenduak izango diren aintzat harturik, hizkuntza-irizpide jakin batzuk finkatu beharko dira oinarrietan, bi hizkuntza ofizialak modu egokian erabiltzeko. Irizpide horiek zehazteko txostena eskatuko zaio Euskara Zerbitzuari.



c) Onuradunek edo erakunde laguntzaileek diru-laguntza eskuratzeko bete beharko dituzten baldintzak, eta eskatzaileek aurkeztu beharreko egiaztagiria.

Berariaz adierazi beharko da bertan ezen, ezingo direla onuradun edo erakunde laguntzaile izan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten dutenek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako erakundeak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

d) Eskabideak aurkezteko epea, eta zein zentro edo bulegotara bidali beharko diren.

e) Eskaria bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak zein diren, baita diru-laguntza emateko proposamena egiteaz arduratuko den organoaren osaera ere.

f) Diru-laguntza emateko modua eta baliatuko diren irizpide objektiboak, baita horien ponderazioa ere.

g) Laguntza edo diru-laguntzaren banako zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak, eta, behar izanez gero, diru-laguntzak emateko gehienezko diru-kopurua.

h) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak diru-laguntzaren helburua bete duela eta jasotako dirua horretarako baliatu duela justifikatzeko epea eta modua, baita horretarako zein agiri baliatu ahal izango diren ere.

i) Diru-laguntza beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarri den ala halakoak jasotzearekin bateraezina den. Bateragarritzat joz gero, behar diren muga edo irizpideak finkatu beharko dira, gainfinantziatorik gerta ez dadin.

j) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak eta, halakorik izanez gero, kontura ordaintzeko edo aldez aurreko ordainketak egiteko aukera dagoela, aldez aurreko ordainketarik egin nahiz kontura ordaintzekotan onuradunek edo erakunde laguntzaileek jarri beharko dituzten bermeak ordaintzeko epeak eta moduak eta horien erregimen partikularra, baita interes publikoak babeste aldera beharrezkotzat jotzen diren bestelako berme-neurriak ere.

k) Laguntza edo diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen ez badira hura itzultzeko obligazioa, baita garatzen den jarduera kostatzen dena baino gehiago jasotzen bada soberakoa itzultzekoa ere.

l) Bete beharrekoak betetzen ez direnean, baita itzuli beharreko laguntzak direnean ere, jasotako dirua itzultzeko prozedura, eta horretatik guztiz edo partez noiz libratu ahal izango den.

m) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak dosierra bideratzen duen sailari, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu Hartzaitzari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz bestelako erakunde eskudunei eskatzen dioten informazio guztia helarazteko izango duen obligazioa.

n) Interes publikoen aldeko bestelako edozein berme-neurri, beharrezkotzat jotzen delarik, baita, berariaz hala aurreikusten bada, emandako diru-laguntzak berrikusteko aukera ere.

ñ) Prozedura ebazteko epea eta epe horretan ez ebaztearen ondorioak, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien nahiz deialdiaren beraren kontra aurkez daitezkeen errekurtsioen azalpena, eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta zein epetan, interesatuek egokitzat jotzen duten beste edozein ere aurkeztu ahal izango badute ere.

o) Jakinarazteko modua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikulua ildotik.

12. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAK LEHIAKETA BIDEZ EMATEKO PROZEDURA

12.1.- Abiaraztea: Interesatuak eskatzen duelarik nahiz ofizios abiarazi ahal izango da diru-laguntzak emateko prozedura, aplikagarri den araudian finkatutakoaren ildotik.

12.2.- Ofizios abiarazten bada prozedura, eskumena duen organoak onetsitako deialdi publikoaren bitartez egingo da beti ere, eta horri dagozkion oinarri arautzaileei jarraiki jokatu da.

12.3.- Laguntzak eta diru-laguntzak emateko deialdia arautuko duten oinarriak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, Udal Kazetan eta udalaren web orrian argitaratu beharko dira. Gainera, formalki emango zaie horren berri dagokien herritarren parte-hartze organoei.

12.4.- Administrazio prozeduraren arauetan finkatutako betebeharrak bete beharko dituzte eskabideek, eta eskabide eredu eta sistema normalizatura egokitu beharko dute, halakorik izanez gero.

12.4 bis.- Eskabideak eta agiri osagarriak modu telematikoan aurkezteko aukera bultzatuko du Vitoria-Gasteizko Udalak, 30/1992 legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ildotik.

Onuradunak eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari ziurtagiriak eskatzeko.

Zenbait agiri aurkeztu beharrean ardura bere gain hartzen dueneko aitorpena aurkeztu ahal izango du onuradunak. Halakoetan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik eskatu beharko zaio aitorpenean jasotako datuak egiazko direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko, 15 egunetik gorakoa ezin izango den epean.

12.5.- Eskabideak akatsen bat badu edo arauzko agiriren bat falta bada, osatu egin beharko da, administrazioak hala eskatzen duelarik, hamar eguneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontatuta –hala egin ezean eskabidea besterik gabe artxibatu egingo dela jakinaraziko da bertan.

12.6.- Deialdiaren oinarrietan finkatutakoaren ildotik bideratuko da prozedura, edo diru-laguntza arautzen duen araudiaren ildotik, erabakia hartzeko kontuan izango diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeari dagozkionez administrazio prozedura erkidearen arauetan xedatutakoa aintzat harturik.

12.7.- Eskabideen ebaluazioa egin ondoren –deialdian hala aurreikusten bada– ebazpen-proposamena egingo du prozedura bideratzen duen organoak, eta deialdian bertan zehazten den moduan eman beharko zaio horren berri interesatuari. Orobat eman beharko zaio 10 eguneko epea alegazioak aurkezteko.

12.8.- Diru-laguntza ematea proposatzen den eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko du ebazpen-proposamenak, baita diru-laguntzen zenbatekoak ere, eta orobat eman beharko du ebaluazioaren eta baliatutako balorazio irizpideen berri.

12.9.- Laguntza edo diru-laguntza emateko ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da, eta egiaztatuta geratu beharko dute, beti ere, hartutako erabakiaren oinarriek. Nahi duen ororen arteko lehia baliatzen deneko prozeduretan, araudian edo deialdi publikoaren oinarrietan jasotako irizpide objektiboak baliatuz arrazoitu beharko da ebazpena.

12.10.- Halaber, berariaz adierazi beharko dira honako hauek: xedea, diru-laguntza ematen zaion eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, justifikatzeko modua, zein xedapenen ildotik eman den diru-laguntza, eta laguntza edo diru-laguntzaren araudian nahiz diru-laguntza arautzen duten oinarrietan galdatzen diren baldintza eta betebeharrak. Orobat adierazi beharko da berariaz, beti ere, gainerako eskabideak ezetsi egin direla.

12.11.- Gisa berean, ebazpenaren kontra aurkez ditzaketen errekurtsoen berri emango zaie interesatuei bertan, eta zein organo judizialean eta zein epetan aurkeztu behar dituzten adieraziko, egokitzen jotzen duten beste edozein ere aurkeztu ahal izango badute ere.

12.12.- Prozedura ebatzi eta ebazpenaren berri emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da. Deialdia aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatuko da epe hori. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, eskabidea ezetsizat joko da.

13. ARTIKULUA.- ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA. HITZARMENAK.

13.1.- Ordenantza honen 4. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira diru-laguntza ematea ebatzi aurretik. Aplikagarri diren baldintzak eta konpromisoak finkatuko dira diru-laguntzak bideratzeko izenpetzen diren hitzarmenetan, ordenantza honetan eta gainerako arau orokorretan jasotakoaren ildotik.

13.2.- Hitzarmenak izango dira Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontuetan inoren izena eta guzti aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresnak.

14. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZEN BERRI ARGITARATZEA

14.1.- Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argiratu beharko da emandako diru-laguntzen berri, banaka harturik 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen dutelarik, eta honako hauek adierazi beharko dira bertan: deialdia, programa eta aurrekontu kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta diru-laguntzaren xedea edo helburuak.



14.2.- Zenbatekoak, banaka harturik, kopuru horretatik beherakoak direlarik, zerrenda batean bildu beharko dira emandako diru-laguntzak, eta hiru hilean behin argitaratu hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, Udal Kazetan, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian.

Epe horretan emandako diru-laguntzak ageriko dira zerrendan, eta diru-laguntzen onuradunak, zenbatekoak eta xedeak zehaztuko.

14.3.- Ez da beharrezko izango diru-laguntza eman izanaren berri argitaratzea honako haue-tan:

- a) Diru-laguntzak erakundearen aurrekontuetan izenez esleituta ageri direnean.
- b) Diru-laguntza onuradun jakin bati ematea –baita eman beharreko kopurua ere– lege mailako arauen batek agintzen duenaren ondorio denean.
- c) Onuradunaren datuak agitaratzea –diru-laguntzaren xedea dela eta– maiatzaren 5eko Ohorea, Norberaren eta Familiaren Intimitatea nahiz Norberaren Irudia Zaintzeko Esku-bidea Babesteari buruzko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitakoaren kontrakoa izaki araudian hala aurreikusi denean.

14.4.- Diru-laguntza jasotzen duten programen, jardueren, inbertsioen nahiz bestelako ekin-tzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitate egokia egin beharko dute onuradunek nahiz erakunde laguntzaileek, oinarrietan finkatzen den moduan egin ere.

LAUGARREN KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAREN KUDEAKETA, JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

15. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kudeatzen dituzten diru-laguntzei buruzko informazioa emateko egin beharrekoak egin beharko dituzte Vitoria-Gasteizko Udalak eta ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako erakundeek, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokoraren 20. artikuluan eta hori garatzeko arauetan xedatuta-koaren ildotik.

16. ARTIKULUA.- ONURADUNEK DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN JARDUERAK AZPIKONTRATATZEA

16.1.- Ordenantza honi dagokionez, hauxe joko da onuradunaren azpikontrataziotzat: beste norbaitekin hitzartzea hark egin dezala diru-laguntzaren xede den jarduera, osorik nahiz parte



bat. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da diruz lagundutako jarduera berak egiteko onuradunak egin beharreko gastuen kontratazioa.

16.2.- Diru-laguntzaren araudian aukera hori jasotzen delarik bakarrik azpikontratatu ahal izango du jarduera onuradunak, osorik nahiz parte bat. Diruz lagundutako jarduera besterekin azpikontratatzeko duelarik onuradunak, ezingo da gaintitu diru-laguntza arautzen duten oinarrietan finkatutako ehunekoa. Bertan halako aurreikuspenik egiten ez bada, berriz, onuradunak ezingo du kontratatu diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 baino gehiago.

Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duelarik ere haren edukari balio erantsirik ez dakarkion ekintzarik.

16.3.- Besterekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20 gaintitzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, baldintza hauek bete beharko dira azpikontratazioa egiterakoan:

- a) Kontratua idatziz egitea.
- b) Diru-laguntza eman duen erakundearen baimena lortzea alde aurretik, oinarri arautzaileetan finkatzen den moduan.

16.4.- Ezingo da kontratu bat zatitu berorren zenbatekoa murriztu eta hartara aurreko atalean galdatutako betekizunak betetzeari itzuri egiteko.

16.5.- Onuradunaren edo erakunde laguntzailearen aurrean baino ez dute erantzun beharko kontratistek, haiek izango baitute diruz lagundutako jarduera zertzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean.

16.6.- Aurreko atalean adierazitakoa dela eta, onuradunaren edo erakunde laguntzaileen arduraren izango da, besterekin hitzartzen dutelarik diruz lagundutako jarduera gauzatzea, diru-laguntza arautzen duen araudian finkatutako mugak errespetatzea diruz lagun daitezkeen gastuen izazari eta zenbatekoari dagokienez, eta kontratistek, berriz, ordenantza honen 27. artikuluan adierazten den laguntzeko obligazioa izango dute, hots, muga horiek gaintitzen ez direla behar bezala egiaztatzen uztekoa.

16.7.- Onuradunak edo erakunde laguntzaileak inolaz ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa nahiz horren parte bat zertzea honako hauekin:

- a) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku egoeraren batean dauden pertsona edo erakundeekin.
- b) Kontratazioaren xede den jarduera bideratzeko beste diru-laguntzaren bat jaso duten pertsona edo erakundeekin.



c) Bitartekari edo aholkulariekin, eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin bat finkatzen delarik ordainketa gisa, salbu eta egindako lanaren edo eskainitako zerbitzuen lan-merkatuko balioa aintzat harturik hori justifikatua badago.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo erakundeekin, salbu eta zirkunstantzia hauek egokitzen direlarik:

1.- Kontratazioa ohiko merkatu baldintzei jarraiki egitea.

2.- Emaile den organoaren baimena lortzea alde zuzenetik, oinarri arautzaileetan finkatzen den moduan.

e) Deialdi eta programa beraren baitan laguntza edo diru-laguntza eskatu eta – baldintzak betetzen ez zituztelako edo nahikoa balorazio lortu ez zutelako– eskuratu ez duten pertsona edo erakundeekin.

17. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK.

17.1.- Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan finkatutako epean egiten direlarik. Horiei dagokienez, inolaz ere ezingo du izan eroste kostuak merkatuko balioetik gorakoa.

17.2.- Diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta hura egoki prestatu edo bideratzeko ezinbestekoak badira bakarrik baliatu ahal izango da diru-laguntza honako hauei aurre egiteko: finantza gastuak, aholkularitza juridikoaren nahiz finantza aholkularitzaren alorreko gastuak, notario nahiz erregistro gastuak eta adituei ordaintzetik sortuak eta berariazko administrazio gastuak.

17.3.- Inolaz ezingo da diru-laguntzarik eman hauetarako:

- a) Banku kontuetako zor interesetarako.
- b) Interes, gainordain eta zigor administratibo eta penaletarako.
- c) Prozedura judizialetakoa gastuetarako.
- d) Zeharkako zergetarako, berreskuragarri edo konpentsagarri direlarik.

17.4.- Salbu eta diru-laguntza arautzen duten oinarrietan berariaz kontrakoa adierazten delarik, benetan dena delako deialdian finkatutako epearen barruan ordaintzen direnak joko dira egindako gastutzat.

17.5.- Baldin eta diru-laguntzaren xedea ondasun inbertariagarriak eraiki, birgaitu edo hobetzea bada, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.4., 5. eta 6. artikuluan bildutako araei jarraiki jokatuko da.

18. ARTIKULUA.- GASTUA EGITEKO KONPROMISOA ETA ORDAINKETA.

18.1.- Dena delako gastua egiteko konpromisoa ekarriko du berekin diru-laguntza emateko ebazpenak.

18.2.- Onuradunak edo erakunde laguntzaileak jarduera, proiektua edo xedea burutu edo jokatzea bereganatu duela egiaztatzen duelarik ordainduko da diru-laguntza, oinarri arautzaileetan finkatutakoaren ildotik.

18.3.- Hala ere, diru-laguntzaren zer-nolakoek hala egitea justifikatzen dutenean, egin ahal izango da ordainketarik kontura, hau da, ordainketa zatikatuak egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzak gauzatu ahala, aurkezten diren justifikazioei dagokiena ordainduz aldiko.

18.4.- Aldez aurreko ordainketak ere egin ahal izango dira, hau da, fondoak justifikatu aurretik eman, diru-laguntzari lotuak diren jarduerak aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko finantziazioa direlarik. Aukera hori, baita, behar izanez gero, baliatuko diren bermeak ere, berariaz jaso beharko dira diru-laguntza arautzen duten oinarrietan.

18.5.- Inolaz ere ezingo zaie aldez aurreko ordainketarik egin Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 3. artikuluan jasotzen diren egoeretakoren batean egokitzen diren onuradunei.

18.6.- Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta onuradunak edo erakunde laguntzaileak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura ebatzi delarik zordun bada ere.

19. ARTIKULUA.- EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA

1. Arauz finkatzen den moduan justifikatu beharko da diru-laguntza eman zenean jarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla, horretarako behar diren agiriak aurkeztuz. Hain zuzen ere, arauan zer xedatzen den ere, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu ahal izango da, edo moduluka egiaztatu gastua, edo kontabilitate egoerak aurkeztu.

2. Justifikatzeko kontuak ematea nahitaezkoa da onuradunarentzat edo erakunde laguntzailearentzat, eta diru-laguntza publikoaren xedea bete dela egiaztatzeko aukera ematen duten gastu egiaztagiria edo balio juridikoa duten bestelako agiriak sartu beharko dira horren baitan, deklarazioa egiten duenaren erantzukizunpean.

Justifikatzeko kontuaren forma eta hori aurkezteko epea diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ageriko dira zehaztuta.

Oinarri arautzaileetan ez bada halakorik aurreikusten, diru-laguntzarekin finantzatu diren jardueren eta horien kostuaren deklarazioa jaso beharko du bere baitan kontuak, egindako gastuak



banaka ematen direlarik, eta gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jarduera egiteko epea bukatu zenetik kontatuta.

3. Fakturen bitartez egiaztatu beharko dira gastuak, edo juridikoki nahiz merkataritzan horienaren pareko froga-balioa aitortzen zaien bestelako agiriak edo administrazio-eraginkortasuna duten agiriak aurkeztuz, arauz finkatzen den moduan.

Faktura elektronikoen bitartez ere egiaztatu ahal izango dira gastuak, horiek zergen esparruan onartuak izateko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Gastu egiaztagiria ontzat eman eta horiei zigilua jartzeko sistema bat finkatuko da arauz, baina jasotzen diren diru-laguntzen kontrola edukitzeko aukera izate aldera.

4. Diru-laguntzarekin ez ezik, fondo propioekin edo bestelako diru-laguntza edo baliabideekin ere finantziatu badira jarduerak, zenbatekoa justifikatzerakoan fondo horien jatorria egiaztatu beharko da, baita diruz lagundutako jardueretarako baliatu direla ere.

5. Ondasun higiezinak erosi badira, artikuluko 3. atalean adierazitako egiaztagiriez gain, behaz bezala akreditatutako eta dagokion erregistro ofizialean izena emandako tasatzaile independente baten ziurtagiria auzeratu beharko da.

6. Lege honen 11. artikuluko 2. atalean eta 3.eko bigarren paragrafoan aurreikusitako erakundeetako kideek justifikatze betebeharrak betetzeko obligazioa izango dute –aurreko ataletan zehaztu den moduan– onuradunaren izenean eta haren kontura egiten dituzten jarduerak direla eta. Diru-laguntza eskatu zuen onuradunak eman beharreko justifikazioaren parte izango dira agiri horiek.

7. Jasotzailea egoera jakin batean dagoelako ematen delarik diru-laguntza, ez da beste justifikaziorik beharko, ezpada diru-laguntza eman aurretik egoera hori egiaztatzea, zuzenbidean onargarri den edozein bitarteko baliatuz, egoera egiaztatze finka litezkeen bestelako kontrolak gorabehera.

8. Diru-laguntza justifikatzeko obligazioa kapitulu honetan finkatutako moduan ez betetzeak, baita hura behar bezala ez justifikatzea ere, jasotako dirua itzuli beharra ekarriko du berekin, lege honen 37. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

19.3.- Onuradunek edo erakunde laguntzaileek aurkeztutako justifikazioak Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusira igorriko dira, fiskalizatu ditzan, eta, diru-laguntza zertarako eman zen, jasotako fondo publikoak horretarako baliatu direla egiaztatu ahal izango du hark.

Diru-laguntza zein jardueretarako eman zen, hori burutzen delarik, agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio dena delako udal sail edo organoari:

a) Egindako jardueren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balorazioa barne.

b) Laguntza ekonomikoari esker bideratutako jardueraren baitan egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

BOSGARREN KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

20. ARTIKULUA.- ITZULI BEHAR IZATEKO ARRAZOIAK

20.1.- Laguntza edo diru-laguntzak emateko ebazpenen deuseztasun edo deuseztagarritasunari dagokionez Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 36. artikuluan aurreikusitako kasuez gain, ondorengo kasuetan ere itzuli beharko dira jasotako diru-kopuruak –orobat galdatu ahal izango dira ordaindu zirenetik itzuli beharra dagoela erabaki bitarteko atzerapen interesak:

- a) Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketenak ezkutatzuz eskuratu bada diru laguntza.
- b) Diru-laguntza ematea ekarri duen helburua, jarduera edo proiektua –osorik nahiz zati bat– bete ez bada, diru-laguntza ematea ekarri zuen jokabidea nork bereganatu ez badu edo diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete ez badira.
- c) Justifikatzeko obligazioa betetzen ez bada edo behar bezala betetzen ez bada, ordenantza honen 17. artikularen nahiz, bertan horren ingurukorik jasotzen bada, diru-laguntzaren arauetan xedatutakoaren ildotik.
- d) Zabalkundea emateko neurriak –ordenantza honen 14. artikuluko 4. atala– hartzeko obligazioa bete ez bada.
- e) Ordenantza honen 6. artikuluan finantzak aztertu eta kontrolatzeko aurreikusitako ekintzei aurre egin, aitzakiak jarri, enbarazu egin nahiz uko egin bazaie, baita kontabilitatearen, erregistroaren edo agiriak gordetzeko obligazioaren alorrean bete beharrekoak bete ez badira ere, baldin eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako fondoak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Batasuneko– edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.
- f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaientean beren gain hartutako konpromisoak bete ez badituzte ere, diru-laguntza ematerakoan oinarritzat hartu ziren helburuak lortzeko moduari, jarduera bideratzeko moduari, proiektua gauzatzeko moduari nahiz nork bereganatu beharreko jokabideari dagozkiolarik edo eragiten diotelarik.
- g) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaientean beren gain hartutako aurrekoen beste konpromisoak bete ez badituzte ere, eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako fondoak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Batasuneko– edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

h) Diru-laguntza arautzen duten oinarrietan aurreikusitako gainerako egoeretan.

20.2.- Halaber, ordenantza honen 9. artikuluko 3. atalean adierazitako egoera egokitzen bada, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen diru-kopurua, eta horri dagozkion atzerapen interesak galdatu ahal izango dira.

21. ARTIKULUA.- ITZULI BEHARREKO KREDITUEN IZAERA

Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira, eta, itzuli beharrekoa finkatutako epeetan itzultzen ez bada, premiamendu bidea baliatu ahal izango da.

22. ARTIKULUA.- ITZULTZERA BAHARTUAK

Onuradunek eta erakunde laguntzaileek itzuli egin beharko dituzte jasotako diru-kopuruak – osorik nahiz parte bat–, dagozkien atzerapen interesak gehituta, ordenantza honen 20. artikuluan adierazitako kasuetan. Betebehar hori gorabehera, bidezko diren zigorrak jartzetik ere izango da.

23. ARTIKULUA.- ITZULARAZTEKO PROZEDURA

23.1.- Eman zuen organoak izango du diru-laguntza osoa nahiz haren zati bat itzul dadila galdatzeko erabakia hartzeko eskumena.

23.2.- Honela abiaraziko da diru-laguntzak itzularazteko prozedura: ofizioz, laguntza edo diru-laguntza eman zuen organoaren eskariz, goitik etorritako agindu baten ondorioz, beste organoren baten eskari arrazoitua dela medio edo alor horretan kontrol eta ikuskaritza lanak egiteko eskumena duen organoren baten eskariz, salaketa edo partikularrak berak egindako komunikazioa dela medio.

23.3.- Edonola ere, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatu beharko da prozeduraren baitan.

23.4.- Emandako diru-laguntza, osoa edo parte bat, behar ez bezala baliatu dela egiaztatzen delarik, ebazpen arrazoitua emango du eskumena duen organoak, eta berariaz jasoko ditu bertan hura itzultzeko obligazioa dakarten arrazoiak, baita itzuli beharreko zenbatekoa eta hori Vitoria-Gasteizko Udaleko Diruzaintzan itzultzeko modua eta epea ere. Orobat jakinaraziko zaio interesatuari itzuli beharrekoa epe horretan itzultzen ez badu premiamendu prozedura aplikatuko dela, eta ebazpenaren kontra aurkez ditzakeen errekurtsoen berri emango.

23.5.- Zergen eta Zuzenbide Publikoko beste Diru-sarrera Lokal batzuen Gestio, Zerga-bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorraren 62. eta hurrengo artikuluen ildotik bideratuko da premiamendu prozedura.



23.6.- Laguntza itzularazteko prozedura administrazioko arau-hauste izan litezkeen gertakarien ondorioz abiarazia bada, eskumena duen organori jakinaraziko zaio, zigortze prozedurari ekin diezaion.

24. ARTIKULUA.- KAUTELAZKO NEURRIAK

Jasotako diru-laguntza edo laguntza oker eskuratu zela, gaizki baliatu dela edo behar zenerako erabili ez dela atzematen bada kudeatze, ikuskatze edo kontrol lanak egitean, hala jasoko da dosierrean eta hura itzularazteko prozedura abiaraziko da. Onuradunari oraindik ordaindu gabeko diru-kopuruen ordainketa bertan behera uztea erabaki ahal izango du diru-laguntza eman zuten organoak horrenbestez, kautelazko neurri gisa.

SEIGARREN KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

25. ARTIKULUA.- ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA

Udaleko Kontu-hartzailletza Nagusiari dagozkion finantzak eta eraginkortasuna kontrolatzeko zereginak gorabehera, udal sail, erakunde eta elkarte publikoek ebaluatu egin beharko dituzte diruz lagundutako programak, gauzatu ondoren, emaitzak eta baliagarritasun eta eragin soziala aztertzeko, horiek mantentzea edo bertan behera uztea komeni den erabakitze aldera.

26. ARTIKULUA.- FINANTZEN KONTROLA

26.1.- Udalaren nahiz ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako erakundeen aurrekontuen kontura ematen diren diru-laguntzen finantza-kontrola Udal Kontu-hartzailletza Nagusiari dago-kio, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkion zereginak gorabehera.

26.2.- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren III. Tituluan jasotakoaren arabera bideratuko da finantzen kontrola, berorren hamalagarren xedapen gehigarriaren ildotik.

27. ARTIKULUA.- LAGUNTZEKO OBLIGAZIOA

Kontrol zereginetan laguntzeko eta erraztasunak emateko obligazioa izango dute onuradunek eta erakunde laguntzaileek, baita diru-laguntzaren xedearekin edo hura justifikatzearekin zeri-kusirik duen edonork ere, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 46. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN ALORREKO ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK

28. ARTIKULUA.- ADMINISTRAZIO ARAU-HAUSTEAK

28.1.- Kontzeptua.- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean tipifikatutako ekintza eta omisi-oak izango dira diru-laguntzen alorreko administrazio arau-haustek, eta zabarkeria huts gisa ere zigortu ahal izango dira.

28.2.- Erantzuleak.- Ekintza edo omisioa dela medio lege horretan arau-haustetzat tipifikatu-tako egoeraren batean egokitzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, publiko nahiz pribatuak, eta ordenantza honen 6. artikuluan aipatu diren nortasunik gabeko erakundeak izango dira diru-laguntzen alorreko administrazio arau-hausteen erantzule, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Diru-laguntzen onuradunak, baita ordenantza honen 6. artikuluko 2. atalean adierazi diren pertsonak eta bertan jasotako erakundeetako kideak ere, diruz lagundutako jarduerak egiteko konpromisoa beren gain hartua dutelarik.
- b) Erakunde laguntzaileak.
- c) Jarduteko gaitasunik ez duten diru-laguntzen onuradunen legezko ordezkariak.
- d) Diru-laguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsona nahiz erakundeak, laguntza ematera eta eskatzen zaizkien agiriak aurkeztera behartuta daudelarik ordenantza honen 27. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

28.3.- Erantzukizunetik salbuetsita geratzea.- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean tipifikatutako ekintza eta omisioek ez dute diru-laguntzen alorreko administrazio arau-hausteagatiko erantzukizunik ekarriko berekin honako hauetan:

- a) Jarduteko gaitasunik ez dutenek eginak direnean.
- b) Ezinbestekoak izan direnean.
- c) Erabaki kolektibo baten ondorio direnean, erabakia hartu zen bilkuran izan ez zirenei eta beren botoa salbu utzi zutenei dagokienean.

28.4.- Zigor arloko jurisdikziora jotzea.

1.- Baldin eta administrazioak uste badu jokabide jakin bat delitu izan litekeela, eskumena duen jurisdikzioari igorriko dio erruduntasun-lekukotasuna, eta ez du aurrera jarraituko zigortze prozedurarekin harik eta agintari judizialak epai irmoa eman edo bere jarduera bertan behera utzi edo artxibatu arte, edo Ministerio Fiskalak dosierra itzuli arte.



2.- Agintari judizialak zigorra jartzen duelarik, ez da administrazio zigorrik jartzerik izango.

3.- Delitua izan denik irizten ez bada, dossier zigortzailea abiarazi edo jarraituko du administrazioak, epaileek frogatuzat jo dituzten gertakariak oinarritzat hartuta.

29. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE ARINAK

Ordenantza honetan edo diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan adierazten den edozein betebeharrak ez delarik, arau-hauste arintzat joko da hori, baldin eta arau-hauste larria edo oso larria ez bada eta zigorra mailakatzeko elementutzat jotzen ez bada. Bereziki, jokabide hauek joko dira arau-hauste arintzat:

- a) Jasotako fondoak zertarako balitu diren justifikatzeko kontuak epez kanpo aurkeztea.
- b) Justifikatzeko kontu okerrak edo osagabeak aurkeztea.
- c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan berariaz aurreikusten ez badira ere diru-laguntza ematearen ondorioz inork bere gain hartzen dituen betebeharrak ez betetzea, arauz finkatutako moduan.
- d) Kontabilitatearen eta erregistroen alorreko betebeharrak ez betetzea, eta bereziki:
 - 1.- Eragiketaren bat oker jasotzea edo ez jasotzea kontabilitatean eta legeak eskatzen dituen erregistroetan.
 - 2.- Kontabilitatea eramateko, legez finkatutako erregistroak edukitzeko eta horien euskarri diren programa eta artxibo informatikoak eta erabilitako kodifikazio sistemak gordetzeko obligazioa ez betetzea.
 - 3.- Kontabilitate bat baino gehiago eramatea jarduera eta ekitaldi ekonomiko bera dela eta, erakundearen benetako egoeraren berri edukitzea eragozten delarik hartara.
 - 4.- Beren izaera dela-eta dagokienaz bestelako esanahiarekin erabiltzea kontuak, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailtzen delarik hartara.
- e) Egiaztagiriak edo horien baliokide diren agiriak gordetzeko obligazioa ez betetzea.
- f) Erakunde laguntzaileek ordenantza honen 6.5. artikuluan finkatutako betebeharrak, artikulu honetako gainerako ataletan berariaz aipatzen ez direnak, ez betetzea.
- g) Finantza-kontrolerako jardueri aurre egin, oztopo edo aitzakiak jarri edo uko egitea.



Diru-laguntzen alorreko administrazio arau-hausteen erantzuleak, behar bezala jakinarazi arren, finantza-kontrolaren alorreko lanak egiten ari diren Udaleko Kontuhartzailetza Nagusiko funtzionarioen jarduerak luzarazi, behaztopatu edo galaraztera bideratutako ekintzak egiten dituenean esan ahal izango da zirkunstantzia hori egokitu dela.

Besteak beste, jokabide hauek joko dira aurre egite, oztopo edo aitzakiak jartze edo uko egitezat:

1.- Agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, egiaztagirak, kontabilitate idazpenak, programa eta artxibo informatikoak, sistema eragileak eta kontrol sistemak nahiz egiaztatu beharreko beste edozein datu ez aurkeztea edo horiek aztertzeko erraztasunik ez ematea.

2.- Errekerimenduren bati ez erantzutea.

3.- Adierazitako lekura ez agertzea horretarako emandako denboran, salbu eta arrazoi justifikaturen bat izanez gero.

4.- Finantza-kontrola egiten duten langileekin bortxa erabiltzea.

h) Ordenantza honen 27. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek laguntzeko obligazioa ez betetzea, baldin eta onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzeke ezintasuna badakar horrek berekin.

i) Europar Batasuneko diru-laguntzen alorreko araudian arau-hauste arintzat jotzen diren gainerako jokabideak.

30. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE LARRIAK

Jokabide hauek joko dira arau-hauste larritzat:

a) Helburu berarekin beste diru-laguntza, laguntza publiko, diru-sarrera edo baliabiderik eskatuz gero diru-laguntza eman duen organoa edo erakunde laguntzailea jakinaren gainean jartzeko obligazioa –ordenantza honen 6. artikuluko 3. ataleko d) paragrafoan adierazitakoa– ez betetzea.

b) Diru-laguntza zertarako eman zen, helburu horietan funtsezko aldaketak egin eta, horrenbestez, jarritako baldintzak ez betetzea.

c) Jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatu gabe edukitzea, horretarako epea igarotzen delarik.

d) Diru-laguntza arautzen duten oinarrietan eskatutako baldintzak faltsutuz lortzea erakunde laguntzaile izatea, edo hori galaraziko zuketena ezkutatu.



e) Diru-laguntzak emateko baldintzak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko duen obligazioa ez betetzea erakunde laguntzaileak, baldin eta hori dela-eta diru-laguntza itzuli beharra egokitzen bada gerora.

f) Europar Batasuneko diru-laguntzen alorreko araudian arau-hauste larritzat jotzen diren gainerako jokabideak.

31. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

Jokabide hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:

a) Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko edo hura murriztuko zuketanak ezkutatuz eskuratzea diru-laguntza.

b) Diru-laguntza zertarako eman zen, jasotako diru-kopurua, osorik nahiz partez, horretarako ez baliatzea.

c) Ordenantza honen 6. artikuluko 3. ataleko c) paragrafoan eta 6. artikuluko 5. ataleko d) paragrafoan adierazitako kontrol ekintzei aurre egin, aitzakiak jarri, enbarazu egin nahiz uko egi-tea, baldin eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako fondoak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Batasuneko– edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

d) Erakunde laguntzaileek –diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan finkatutako irizpideei jarraiki– jasotako fondoak onuradunei ez ematea, hala erabakitzen delarik.

e) Europar Batasuneko diru-laguntzen alorreko araudian arau-hauste oso larritzat jotzen diren gainerako jokabideak.

32. ARTIKULUA.- ZIGOR MOTAK

Diruzko zigorrak jarritz zigortuko dira diru-laguntzen alorreko arau-haustek, baita, hala baldin badagokie, diruzkoez bestelakoak jarritz ere.

33. ARTIKULUA.- ZIGORREN MAILAKETA

33.1.- Kapitulu honetan jasotako arau-haustek mailakatu egingo dira kasuz kasu, honako hauek aintzat harturik:

a) Diru-laguntzen alorreko arau-haustea behin eta berriro egin diren.

Arau-haustearen subjektua lehendik, arau-haustea egin aurreko lau urteetan, administrazio bidean dagoeneko irmoa den ebazpen baten bidez izaera bereko arau-hauste larri nahiz oso larri batengatik zigortua izan bada egokituko da hura zirkunstantzia horretan.

Arau-hauste larri edo oso larri bat egitean zirkunstantzia horretan egokituz gero, ehuneko 10etik 75era bitarteko igoera aplikatuko zaio gutxieneko zigorrari.

b) Ordenantza honen 6. artikuluko 3. ataleko c) paragrafoan eta 5. ataleko d) paragrafoan jasotako kontrol ekintzei uko egin edo enbarazu egin zaien. Arau-hauste larri edo oso larri bat egitean zirkunstantzia horretan egokituz gero, ehuneko 10etik 75era bitarteko igoera aplikatuko zaio gutxieneko zigorrari.

c) Diru-laguntzen alorreko arau-haustea egitean iruzurrezko bitartekorik baliatu den.

Nagusiki, honako hauek joko dira iruzurrezko bitartekotzat:

1.- Funtsezko irregulartasunak kontabilitatean eta legez finkatutako erregistroetan.

2.- Faktura, egiaztagiri edo bestelako agiri agiri faltsuak edo faltsutuak erabiltzea.

3.- Bitarteko pertsona edo erakundeak baliatzea, diruz lagundutako jardueraren errealitatea egiaztatzea zailtzen delarik hartara.

Arau-hauste larri edo oso larri bat egitean zirkunstantzia horretan egokituz gero, ehuneko 20tik 100era bitarteko igoera aplikatuko zaio gutxieneko zigorrari.

d) Jasotako diru-laguntza zertarako baliatu den egiaztatzeko beharrezko ziren datuak ezkutatu zaizkion administrazioari, dela aurkeztu beharreko ziurtagiriak ez aurkeztuz, dela agiri osagabeak edo okerrak aurkeztuz. Arau-hauste larri edo oso larri bat egitean zirkunstantzia horretan egokituz gero, ehuneko 10etik 50era bitarteko igoera aplikatuko zaio zigorrari.

e) Betebehar formalak betetzerakoan atzerapenik izan den.

33.2.- Mailakatze irizpide bat baino gehiago aplikatu ahal izango da aldi berean. Aurreko e) paragrafoan finkatutako irizpidea, berriz, arau-hauste arinak mailakatzeko bakarrik erabiliko da.

33.3.- Aurreko ataletan jasotako mailakatze irizpideak ezingo dira baliatu arau-haustea larri-gotzat jotzeko berorren funtsa den jokabidearen deskribapenean ageri badira edo arauz kontrako ekintzaren beraren parte badira.

33.4.- Diru-laguntza jakin bat dela-eta arau-haustea berari jartzen zaizkion zigor arinen zenbatekoak, guztira, ezingo du gainditu emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.



33.5.- Diru-laguntza jakin bat dela-eta arau-hausle berari jartzen zaizkion zigor larri eta oso larrien zenbatekoak, guztira, ezingo du izan oker eskuratu edo baliatu den edo justifikatu ez den kopurua halako hirutik gorakoa, edo, erakunde laguntzaileen kasuan, oker aplikatu edo justifikatutako kopurua halako hirutik gorakoa.

34. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE ARINENGATIKO ZIGORRAK

75 eurotik 750era bitarteko isun banarekin zigortuko dira arau-hauste arinak.

35. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE LARRIENGATIKO ZIGORRAK

35.1.- Oker eskuratu edo baliatu den edo justifikatu ez den kopurutik halako bira bitarteko isuna jarriz zigortuko dira arau-hauste larriak, edo, erakunde laguntzaileen kasuan, oker aplikatu edo justifikatutako kopurutik halako bira bitarteko isuna jarriz.

35.2.- Vitoria-Gasteizko Udalarengandik nahiz ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako erakundeengandik laguntza edo diru-laguntzak eskuratzeko aukera oro ukatuz zigortu ahal izango dira bai onuradunak, bai erakunde laguntzaileak, gehienez ere hiru urtez.

35.3.- Vitoria-Gasteizko Udalarekin nahiz ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako erakundeekin kontratuak egitea debekatu ahal izango da, gehienez hiru urtez.

35.4.- Orobat galarazi ahal izango da, gehienez hiru urtez, ordenantza honetan araututako diru-laguntzak direla-eta erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera.

36. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE OSO LARRIENGATIKO ZIGORRAK

36.1.- Oker eskuratu edo baliatu den edo justifikatu ez den kopurua halako bitik halako hirura bitarteko isuna jarriz zigortuko dira arau-hauste oso larriak, edo, erakunde laguntzaileen kasuan, oker aplikatu edo justifikatutako kopurua halako bitik halako hirura bitarteko isuna jarriz.

36.2.- Vitoria-Gasteizko Udalarengandik nahiz ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako erakundeengandik laguntza edo diru-laguntzak eskuratzeko aukera oro ukatuz zigortu ahal izango dira bai onuradunak, bai erakunde laguntzaileak, gehienez ere bost urtez.

36.3.- Vitoria-Gasteizko Udalarekin nahiz ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako erakundeekin kontratuak egitea debekatu ahal izango da, gehienez bost urtez.

36.4.- Orobat galarazi ahal izango da, gehienez bost urtez, ordenantza honetan araututako diru-laguntzak direla-eta erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera.

37. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE ETA ZIGORREN PRESKRIPZIOA



37.1.- Lau urteren buruan preskribatuko dute arau-hausteeak, dena delako arau-haustea egin zen egunetik kontatuta.

37.2.- Lau urteren buruan preskribatuko dute zigorrek, dena delako zigorra jartzeko ebazpena irmo bilakatu zen egunaren biharamunetik kontatuta.

37.3.- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 132. artikuluan adierazitako kasuetan eten egingo da preskribatzeko epea.

37.4.- Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, interesatuak eskatzerik izango badu ere.

38. ARTIKULUA.- ZIGORRAK JARTZEKO ESKUMENA

38.1.- Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra izango da zigorrak jartzeko ebazpenak emateko eskumena izango duen organoa.

38.2.- Alkateak izendatuko du prozeduraren instruktorea, baldin eta zeregin hori aldeztu aurretik inongo administrazio-organori leporatu gabea bada.

38.3.- Ordenantza honen 1. artikuluan adierazi diren gainerako erakundeen kasuan, ordenantza beronen 5.2. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki erabakiko da zein den horretarako eskumena duen organoa.

Baldin eta zigorra ordenantza honen 35.3 eta 36.3. artikuluetan aurreikusitako bat baldin bada, Tokiko Gobernu Batzarrek berretsi beharko du.

39. ARTIKULUA.- ZIGORTZEKO PROZEDURA

39.1.- Administrazio dosierraren bitartez jarriko dira diru-laguntzen alorreko zigorrak. Nolanahi ere, entzualdia eskaini beharko zaio beti ere interesatuari edozein erabaki hartu aurretik, eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen IX. tituluko II. kapituluaren xedatutakoari jarraiki bideratu beharko da dosierra.

39.2.- Ofizioz abiaraziko da prozedura, dela diru-laguntza eman zuen organoak edo erakunde laguntzaileak egiten dituzten egiaztatze jardueren ondorioz, dela ordenantza honetan aurreikusten diren finantza-kontrolaren alorreko jardueren ondorioz.

39.3.- Zigorrak jartzeko erabakiek agortu egingo dute administrazio bidea.

40. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEEN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNA IRAUNGITZEA



Arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna honako hauetan iraungiko da: zigorra ordaindu edo betetzean, preskribatzean eta erantzulea hiltzean.

41. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUNAK

41.1.- Modu solidarioan erantzun beharko dute diruzko zigorraren aurrean ordenantza honen 6.2. artikuluko 3. paragrafoan adierazten diren erakundeetako kide, partaide edo jabekideek, beren partaidetzekiko proportzioan erantzun ere, ondasun komunitateak edo beste edonolako ekonomi unitate edo ondare bereziak direlarik.

42.2.- Modu subsidiarioan erantzun beharko dute diruzko zigorraren aurrean merkataritza-sozietateen administratzaileek, baita beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnek ere, aplikagarri zaizkien lege nahiz estutuetoako xedapenen ildotik, baldin eta beren ardura diren eginkizunak egiten ez badituzte betebeharrak bete daitezten, betebeharrak ez betetzea posible egiten duten erabakiak hartzen badituzte edo beren menpekoenak galarazten ez badituzte.

42.3.- Desegin eta likidatutako sozietate edo erakundeen kasuan, legeak bazkide, partaide edo jabekideen ondarearen gaineko erantzukizuna mugatzen duenari, horiei igorriko zaizkie ordaintzeke dauden zigorrak, eta modu solidarioan egongo dira horiei aurre egitera behartuta, esleitu zaizkien edo esleitu beharko litzaizkiekeen likidazio-kuoten balioaren mugara bitartean.

42.4.- Desegin eta likidatutako sozietate edo erakundeen kasuan, legeak bazkide, partaide edo jabekideen ondarearen gaineko erantzukizuna mugatzen ez duenari, horiei igorriko zaizkie ordaintzeke dauden zigorrak, eta modu solidarioan egongo dira horiei aurre egitera behartuta.

XEDAPEN IRAGANKORRA: Prozeduren erregimen iragankorra

1.- Orduan indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie ordenantza hau indarrean jarri aurretik abiarazitako diru-laguntzak emateko prozedurei.

2.- Hori gorabehera, ordenantza indarrean jartzen denetik bertatik izango dira aplikagarri bertan jasotako prozedurak, finantzen kontrolari, dirua itzultzeari eta ekintzak berrikusteari dagozkienetan.

3.- Ordenantza honetan finkatutako zigortzeko erregimena aplikatuko zaiei onuradun eta erakunde laguntzaileei baldin eta aurreko legedian jasotakoa baino aldekoago bazaie horrenbestez erregimen juridikoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA: Aurreko ordenantza indargabetzea

Indarrrik gabe geratuko da udalbatzak 1998ko maiatzaren 22an onetsitako Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onarpena: 17/6/2005

ALHAO, 5 zk. 13/1/2006

AZKEN XEDAPENA: Ordenantza indarrean jartzea

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau.

Ordenantza honetan aurreikusi gabekoetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko da, baita hori garatzeko araudiak eta autonomia erkidegoan aplikagarri den legedia ere.

GEHIGARRIA

***Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan aipatzen diren Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko artikulak:**

59. art.; IX. tituluko II. kapitulua, 132. art., hamabigarren xedapen gehigarria.

***Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan aipatzen diren Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeko artikulak:**

11. art.; 13.2. eta 3. art.; 13.7. art.; 17.2. art.; 20. art.; 22.1. art.; 31.4., 5. eta 6. art.; 36. art.-; 37. art., III. titulua, 46.art., hamalagarren xedapen gehigarria.